

Sos guti haurtzaroan

B.: nik ez daki geoztik zendako in duten onbeste sos, oai ateatzten da sosa naikoa, leeno ez zen sosik, ez zen iraazten e, gauzak ez zien saltzen izigarri untsa, ta bildotsak eta aatxeak eta arrunt merkiak zien, ez zen iten, aita-amek ez zuten iten sosik. Leeno guk ez ginien aita-amek emanik sos bat e, ez ginien galdin e, ez baitzen sosik, aldiz oai amari edo aitari galdin eta baute oaiko aurrek sosa, nik ola kusten dut, geo ez dakit.

E.: eta leeno xure aita-amek eta zertaik iten zuten ossa? Bildotsak salduz...

B.: bildotsa, ta aatxe zombait, bena ek e bekan, ta xantza balin bazen oono, bildotsa ta hola, ta gero bazien ahariak mendian negian, beti atxikitzen zirenak, heekilan iten zuten puxka at, bizpalau urtein burian edo saltzen zuzten, eta hek eta mendian gizentzen baitzien, saltzen zien puxka at, heekin iten zen sosa puxka at, bildotsekin ta aatxeekin ta arrunt guti.

E.: eta ordian Garaziko merkatuan saltzen ziren, ala makiñunak etxeetarar eldu ziren?

B.: ez, ez, eremaiten Donianeko merkatura. Aatxiak eta axuriak eta oriek eremaiten ziren merkatura. Han martxantak pasatzen zien, ta an goor egoiten bazen, uzten zuzten, ta geo aantxu eguerdi zombait aldi baño re saldu gabe, ta geo asten zien, prezioa ez zuten eman nai, ta are, saltzaleek e bildotsak etxeat ez bearrik eta emaiten hundarrian merkio. Oai, aldiz, heek emana da, bildotsa kusiko ute ta unenbeste heek emana ixi-ixila bear dira eman. Ordian ez zen ola, ordian artzen zen tratian puxka at, ara, gure denboran, eh! Geoztik kanbiatiak dira oriek denak.

E.: eta merkatia astelenetan zuxun beti Donibane-Garazin?

B.: astelenetan, ba.

E.: ez zuxun beste noapait joaiten, beste merkatu batzuetarat, Donapaleurat, edo...

B.: ez, ez, ez, ez ordian ez, zaldi karrosaekilan joaiten zen gure aita merkaturat aatxia bazelaik saltzeko, ua re kargatzen giilian karrosan, bera aintzinian, edo beste bat e balin bazen, biga aintzinian, ta aatxia giilian, han jautsi, ta estekatu han, ta geo saldu aratxia, ara.

E.: ta bildotsak zirelarik?

B.: bildotsak ala-ala, karrosan eremaiten, patak estekatuik, ta geo han jausten eta etzanik emaiten, han zien metaka bildotsak merkatian. Martxantak pasatzen zien ikusten, ta geo unkitzen zuzten ia unak zien eta ola, ta zombat in bear zien, aitari erran (...), ta onenbeste, ta ez, eta ez zila emain onbeste, ta tratian artzen zen ordian, ez zen oai bezala.

Garaziko euskararen hizkuntza aldakortasuna

Alexander Artzelus Muxika

Zuzendariak: Iñaki Camino Lertxundi Juan Manuel Hernández-Campoy

Doktorego-tesia Gasteiz, 2021

Hizkuntzalaritza eta Euskal Ikasketak Saila

Euskal Hizkuntzalaritza eta Filologia doktorego-programa

Letren Fakultatea

UPV-EHU

Lan honen karietara, Eleketan agertzen diren lekukotasun zati batzuen transkribapen lan bat egin du.

Hitz osoak idazteko orde, ahoskerari lotu zaio egin ahala